

# Luzaideko eta Ondarrolako hiru gutun

PEIO KAMINO KAMINONDO\*  
PATXI SALABERRI ZARATIEGI\*\*

Oraingoan Uruguaiako Salto (Salto Oriental edo Saladero del Salto Oriental) izeneko hiritik ustez Ondarrolakoak ziren Manex eta Franziska de Gaztanbidek<sup>1</sup> eta hauen ahaide Ferrando Gaztanbidek Montevideon bizi zen Muño izeneko beren jendakiari<sup>2</sup> igorritako bi gutun eta Luzaiden idatzitako beste bat argitaratzen ditugu, lehenbiziko biak 1893koak eta hirugarrena 1904koa. Gutun hauek Koldo Artola adiskideak helarazi zizkigun, baitzekien Luzaideko euskararen aztertzen ari ginela. Koldori Eusako J. M. Pastor lagunak eskuetaratu zizkion eta honi, berriz, Aurizko norbaitek. Beraz, badirudi originalak herri honetan daudela, baina guk ez ditugu ikusi. Esku artean ibili ditugun fotokopietan badira hutsune batzuk, ez dakigu xuxen zergatik, fotokopia egitean papertxoren bat tartekatu zelako edo originaletan xati zenbait falta zirelako.

Lehen bi letrek, Uruguai-Ondarrolakoek, hein batean literatura euskararen eragina dute, eta, beraz, ez dute arunt ematen Arnegiko mintzaira, nahiz, bistan denez, oinarria hangoa den duda-mudarik gabe. Eragin horri zor zaizkioke orain aipatuko ditugunak, baina ez dakigu, halarik ere, kasu guztietan literatura kontua den hemen duguna, *izeba* hitza, konparazione, frankotan ageri baita, egun ibiltzen den aldaera *ttantta* bada ere. Hona hemen itxuraz izkribuzko euskarari zor zaizkionak: *bainan* (*bána* orain), *chinhaurriac* (*xinúrriak*, *zinúrriak*), *desgustuan* (baina *gústjan*, egun), *errespetuac* (*errespétjak*), *espero gelditu* (*béha*, *béa gelditu*), *ginuen* (*ginjén* edo *ginín*), *handia* (*háundja*), *irakurtu* (*léitu*), *izeba* (*ttántta*), *lotsatuak* (*lotsátjak*), *ona* (*húna*), *Ondarlara* (*Undárlara* edo *Undárlat*), *ontsa* (*úntsa*), *orhoitzen* (*ohítzen*)... etab.

\* Luzaideko euskaltzalea.

\*\* Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

<sup>1</sup> Hemen, oker ez bagaude, *Manex Gaztanbide* eta honen emaztea zatekeen *Franziska de Gaztanbide* ditugu, baina ez dakigu segur.

<sup>2</sup> Hau Manexen anaia zela dirudi eta Ferrandoren ahaidea, lehengusua menturaz. Dena dela, badaiteke Manex, Muño eta Ferrando, hirurak, anaiak izatea.

Deklinabidean ere bada euskara jasoa egiteko joera, erraterako genitibo singularraren hondarkian eta hau osagaitzat duen soziatiboarenean: *alabitxiaren* (*alabátxjain*), *biudaren* (*alargúntsain*, *bjúdain*), *errexitruaren* (*errexitruain*, *erregístruain*), *handienarekin* (*haundjénaikin*), *hitzaren* (*hítzain*), *otsailaren* (*otsáilain*), *sosaren* (*sósain*), *zaharraren* (*zahárrain*)... Orobat beste kasu eta numeroetan: *Ahazparneraino* (*Hazpárneand*), *Ameriketarat* (*Ameikétat*), *Andriari* (*Andriai*), *Apheztegiren* (*Apeztégin*), *arrebari* (*arrébai*), *bisitatzerá* (*bisítátzea*), *Europarat* (*Európat*), *guziari* (*gúzjai*), *joitera* (*jóitea*), *Juanañorendako* (*Jwanáñoindakò*), *ororen* (*óroin*), *Peloren* (*Péloin*), *xerkha* (*xéka*)... eta beste.

Literatura euskararen ezaugarriekin batean, badira herri hizkerarenak ere: *ahaiden* ‘ahaideen’, *etxia* ‘etxea’, *familiain* (bertakoa ez den edo diptongoaren bigarren osagaia galdu duen *familian* ere badago; ikus Kamino & Salaberri, 2004: 97), *konserbakuak*, *miatzia* ‘miatzea’, *tristiak*, *tugula* ‘ditugula’... etab. Batzuetan ez dakigu letretan ditugunak euskara idatziaren eraginari zor zaizkion ala egungo aldaera eboluzionatuen aitzindari diren: *ahaide* (*ahíde*, *aíde*; *jendáki* ere bada, Baztanen-eta bezala), *alabitxi* (*alabátxi*), *arno* (*áno*), *eginarazirik* (*inázirik*). Datiboko hondarkia *-ari* da singularrean (*guziari*), egun normalean *-ai* ibiltzen bada ere. Orain hogeita hamar urteko Luzaideko letretan badira, alabaina, hondarki osoa duten forma gutxi batzuk, dardarkaria galdua duten aldaera ohikoenen aldamenen. Hemen kontuan hartu beharra da, halarik ere, XIX. mendeko Ondarrolako eta Luzaideko eskutitzetan hondarki osoa duten formak agertzen direla, eta bakan baizik ez aldaera laburtuak (Satrustegi, 1971): *adresaric*, *bere buriaren*, *errebari* (baina *anayai*), *guerlaren* (eta *hanayain*), *gorpuzarendaco*, *gucietarik*, *isquiriaturic*, *lanera*, *Mariari*, *pasioneric*, *Preyoren*, *quitoric*, *traturic*... eta abar.

Hirugarren gutunari doakionez, berriz, erran dezakegu bere laburrean Luzaideko euskara purra darabilela egileak, *kontest(a)* ‘erantzuna’ hitza egun, guk dakigula, ibiltzen ez bada ere, orain ohikoa *errepostu*, *errepostja* baita; aitzineko bietan, Ondarrolakoetan, *arrapostua* dago. Zalantzarik gabe erran dezakegu hirugarren letrako hizkera herrikoia delá; hau dagoen sandhian ikusten da (*errantzán*), kontsonante erortzean (*aterako zien* ‘aterako zaren’, *ezin karriut*, *karrikout ortzeunian*), aferesian (*karri*<sup>3</sup>), bokal asimilazioan (*nai nin*), herskari hasperendurik ezean (*karri*) eta genitiboaren hondarkitako *-ain* besterik ez azaltzean (*kontestain*). Aspirazioari dagokionez, hirugarren gutunean bizi-bizirik zegoela ikusten da: *beha*, *beha[r]*, *behi*, *berehala*, *hartu*, *hor*, *horra*, *huna*, *hura*, baina *nai nin*, egun egin ohi den moduan; lehen bietan ere hirugarrenean bezala hitz hasieran edo bokal artean agertzen da, baina, honetaz landara, maizkoak dira herskari hasperenduak, hirugarrenean azaltzen ez direnak: *khusi*, *phartez*, *aurth[en]*, *phastuko*, *urthe*, *Apheztegi*, *phasatu*, *itho*, *bethi*, *phentsatzen*, *ikhusiko*, *xerkha*, *ekha[ ]*. Inoiz ozen ondoan ere kausitzen dugu aspirazioa: *xinhaurri*, *Unhaianekuez*, *orhoitzen*, *ilhunbia[n]*. Hortaz, diferentzia garbia ikusten da hasmentako bien eta hirugarrenaren artean; azken honetan *direzionia* agertzea, eta ez leheneko *adreza*, halabeharreko kontua izanen da, egun Luzaiden bi hitzak ibiltzen baitira.

Gutunak jatorrizko grafiarekin eta grafia batuarekin ematen ditugu; ondoko hauek dira:

<sup>3</sup> Bigarreanean *ikhusi* dago, baina lehenean *khusi*.

## LEHEN GUTUNA

## Jatorrizko grafian

Salto Oriental, 23 avril 1893

Mi querido hermano Muño:

Rezibimos. Errezebitu dut zure letra plazerric handienarekin, eta Yracurtu horgo berriekin. Gure osagarria arras ona da eta desiratzen dautçug[u] abantail beraz goza ziten oray eta bethi.

Khusi dugu hanitz yende hil dela eta desiratzen ginuen gure Etcheco Ahaiden berriac chehequi yakitiaz, ene Arreba Yuanañorenac eta ene hau[rri]de guzienac eta Yzeba ñimiño, Yzeba Yuana, Yzeba Ana Josefa eta Allabitchiaren phartez Errespetuac handizki, horien ororen berriac esperatçen tugula hen letran. Gure Etchia noren escuetan den yakin nahi ginuke, huna gure berria.

Otsaillaren 28an hasia da Matansa, 24.000 hilac badira; hanitzen hiltzeco esperantça dugu aurt[en]. Don pascualec dio chinhaurriac indarrac hartçen a[ri] tuztela. Biudaren Etchian hea gallarrotsen yoitera yinen denez Muño.

Dn Pascualec ideya du yiteco Ahazparneraino tur bat fite. Menturaz Matatçian phastuco da. Aitac zembat ourthe dituen nahi luke yakin; fagore egizu erreçitruaren Miatçia.

Yzeba ñimiño, baldin yin nahi balin badu Ameriquetarat, pasaya pagatua izanen duela, hor desgustuan balinbada yin dadin, gu bezala izanen dela hemen, gaztiga dezan deliberatzen balinbadu, oray artian ahal bezala ibili girela, bainan oray oro sosaren idabazten ari girela, ez beldurric izaiteco.

Peloren berriac igorkiadatchu<sup>4</sup> nola den eta non den. Yoinesi eta Andriari goraintçi eta familia guziari, eta zenbat haur diuzten.

Manech Capatasac Doniyuane Apeztegiaren etchera igorrico du letra eta diruz hogey edo hogeietara bat peso. Yuanañoren sosa altchatuco duzu eta erremessiatuco gure phartez comenitu ginen bezela.

Jose Carpinterua hil izan da, eta Carnabalac ere arras tristiciac phasatu dira; Juan Conserbacua Ytho zen Uruguain bera(c) yuanic edo bertçec yauzi eginaraziric.

Yuanes Zaharraren phartez Arrebari goraintçi Ondarlara, berriac yakin nahia dela, eta Piarre ttipiac Miliounka Yosepe Ezkerrarekin chinhaurri hiltçen ari direla eta erdi lotsatuac direla, nahi luketela yakin bueltatuco den. Bichkaineco familiain eta Orchaicheneco familian berriac, Unhayanecuez<sup>5</sup>, Gallurruacuac, aita hanitc orhoitçen dela gaztiaz.

Arno gutiago yaz baino, bainan hobia(c) [ ]<sup>6</sup> sey ehun Bordeles. Yzeba Catalan ontsa da eta familiaco berriac chehequi yakin nahia da. Igor berriac chehequi, hari particularrian. Beriaunecuac ere ontsa dira oro, goraintçi. Ferranditaren berriac handizki, zure beha dago dago noiz yinen zi[ren]. Catalina Vichkaicuari Josepac Mila goraintçi, erretratua nahi nukela harena.

Erramun Chicoren familiar Otan (?) handi bat; Recuerdo Concordiacuec ere Mila goraintzi; ollo batçu baituzte Ylhunbia[n] edertçen ezarriac; zato bisitatçera.

<sup>4</sup> Ez dakigu *igos-* ez ote den irakurri behar lehen zatia.

<sup>5</sup> Bukaerako *-z-*ren gainean *-c* dago idatzirik.

<sup>6</sup> Ez dakigu xuxen nola irakurri behar den guk taketen bidez ordezkatu dugun hitza.

Geechina gure neskato izanari Mila goraintciac ezcondu den[...]; horra dazkigun berri guziac. Mila goraintçi gutaz galdatçen duten guzier; guel-ditçen gira arrapostuaren espero. Zure Arreba eta coinat fidel Bethi.

Letra hunen egilia Manechs Françisca D. Gaztanbide  
 Adreza SP Dn. Pascual Harriaga  
 Saladero del Salto Oriental de Urug[uay]  
 para Ferrando Gaztambide  
 Montevideo  
 Orchaichen Apellidua igorrachu letraren igortçeco

### Egungo grafiarekin emana

Salto Oriental, 23 abril 1893

Mi querido hermano Muño:

Recibimos. Errezebitu dut zure letra plazerrik handienarekin, eta irakur-tu horgo berriekin. Gure osagarria arras ona da eta desiratzen dautzug[u] abantail beraz goza ziten orai eta bethi.

Khusi dugu hanitz jende hil dela eta desiratzen ginuen gure etxeko ahai-den berriak xeheki jakitiaz, ene arreba Juanañorenak eta ene hau[rri]de gu-zienak eta izeba Ñimiño, izeba Juana, izeba Ana Josefa eta alabixiaren phar-tez errespetuak handizki, horien oren berriak esperatzen tugula hen letran. Gure etxia noren eskuetan den jakin nahi ginuke, huna gure berria.

Otsailaren 28an hasia da matan[t]za, 24.000 hilak badira; hanitzen hiltzeko esperantza dugu aurth[en]. Don Paskualek dio xinhaurriak indarrak hartzen a[ri] tuztela. Biudaren etxian hea galarrotsen joitera jinen denez Muño.

Don Paskualek ideia du jiteko Ahazparneraino tur bat fite. Menturaz maiatzian phastuko da. Aitak zenbat urthe dituen nahi luke jakin; fagore egi-zu errexitruaren miatzia.

Izeba Ñimiño, baldin jin nahi balin badu Ameriketarat, pasaia pagatua izanen duela, hor desgustuan balin bada jin dadin, gu bezala izanen dela he-men, gaztiga dezan deliberatzen balin badu, orai artian ahal bezala ibili gire-la, bainan orai oro sosaren idabazten ari girela, ez beldurrik izaiteko.

Peloren berriak igorkiadatxu nola den eta non den. Joinesi eta Andriari goraintzi eta familia guziari, eta zenbat haur diuzten.

Manex kapatazak Donijuane Apheztegiren etxera igorriko du letra eta di-ruz hogeï edo hogeïeta bat peso. Juanañoren sosa altxatuko duzu eta erreme-siatuko gure phartez komenitu ginen bezela.

Jose karpinterua hil izan da, eta karnabalak ere arras tristiak phasatu di-ra; Juan konserbakua itho zen Uruguain bera(k) juanik edo bertzek jauzi egi-narazirik.

Juanes zaharraren phartez arrebari goraintzi Ondarlara, berriak jakin nahia dela, eta Piarre Tipiak miliunka Josepe Ezkerrarekin xinhaurri hiltzen ari direla eta erdi lotsatuak direla, nahi luketela jakin bueltatuko den. Bix-kaineko familiain eta Ortxaixeneko familia[i]n berriak, Unhaianekuez (Un-haianekuek), Gallurrukuak, aita hanitz orhoitzen dela gaztiaz.

Arno gutiago jaz baino, bainan hobia(k) [] seichun Bordeles. Izeba Kata-lin ontsa da eta familiako berriak xeheki jakin nahia da. Igor berriak xeheki, hari partikularrian. Beriaunekuak ere ontsa dira oro, goraintzi. Ferranditaren

berriak handizki, zure beha dago noiz jinen zi[ren]. Katalina Bixkaikuari Josepak mila goraintzi, erretratua nahi nukela harena.

Erramun Txikoren familiak Otan (?) handi bat; *recuerdo*<sup>7</sup> Concordiakuek ere mila goraintzi; ollo batzu baituzte ilhunbia[n] edertzen ezarriak; zato bisatzera.

Geexina gure neskato izanari mila goraintziak ezkondu den[...]; horra dazkigun berri guziak. Mila goraintzi gutaz galdatzen duten guzier; gelditzen gira arrapostuaren espero. Zure Arreba eta koinat fidel bethi.

Letra hunen egilia Manex Franziska D. Gaztanbide

Adreza SP Dn. Paskual Harriaga

Saladero del Salto Oriental de Urug[uay]

para Ferrando Gaztanbide

Montevideo

Ortxaixen apellidua igorraxu letraren igortzeko

## BIGARREN GUTUNA

### Jatorrizko grafian

Salto Oriental, 8 mayo 1893

Muño gure ahaide Maitia:

Huna bi lerro labur eta comprenitçeco gisan. Berritan igorri dugu letra; phentsatçen dugu errezibitu dukezula. Gure osagarria bethi arras ona da, Yaincoari esker, eta desiratcen dautçugu gauza ber[a].

Huna sosa heldu zautçu; Manechcs (sic) Haranen hitçaren arabera errezebituco duzu hoguey eta ba[t] peso, 21 Peso, peso bat Andredena Mariaren aitçinian Meza baten erranarazteco eta gaineracoa badakizu, Ttottaneco Yuanañorendaco. Zuharec ikhussico duzu horren cherkha zuhaur yuan gabe, edozoin negoziantez ekha[ ]diozu Doniyuanetic. Hori zuharec ikhussico duzu [ ] [e]giten ahal duzun.

[ ] [N]aussi chaharra yuan da, Europarat [ ] doha. Pedro Apheteguy heldu da [ ]tan Beraat ikhussico zituela dio. [Ene, Gure] phartes goraintçi; esperantça izanen [ ]nen arrapostua. Ferranditoc pot bat [igortç]en dautçu letra huntan.

[Ma]tantçac segitçen dira hogey eta hamahiru [ ]z hilac dia (dio?). Guzien phartez goraintçi.

Ferrando Gaztambide

### Egungo grafian

Salto Oriental, 8 mayo 1893

Muño gure ahaide maitia:

Huna bi lerro labur eta konprenitzeko gisan. Berritan igorri dugu letra; phentsatzen dugu errezibitu dukezula. Gure osagarria bethi arras ona da, Jainkoari esker, eta desiratzen dautzugu gauza ber[a].

Huna sosa heldu zautzu; Manex Haranen hitzaren arabera errezebituko duzu hogei eta ba[t] peso, 21 peso, peso bat Andredena Mariaren aitçinian

<sup>7</sup> Irudi duenez gaztelaniako *recuerdo* hitza dugu hemen, ondoan heldu den *goraintzi* euskarazkoaren baliokidea. Cf. hasierako *Recibimos. Errezibitu dugu*.

meza baten erranarazteko eta gainerakoa badakizu, Tottaneko Juanañoren-dako. Zuharek ikhusiko duzu horren xerkha zuhaur juan gabe, edozoin ne-goziantez ekha[]diozu Donijuanetik. Hori zuharek ikhusiko duzu [] [e]giten ahal duzun.

[] [N]ausi xaharra juan da, Europarat [] doha. Pedro Apheztegi heldu da []tan Beraat<sup>8</sup> ikhusiko zituela dio. [Ene, Gure] phartez goraintzi; esperantza izanen []nen arrapostua. Ferranditok pot bat [igortz]en dautzu letra huntan.

[Ma]tantzak segitzen dira hogei eta hamahiru []z hilak dia (dio?). Guzien phartez goraintzi.

Ferrando Gaztanbide

## HIRUGARREN GUTUNA

### Jatorrizko grafian

Valcarlos, a 12 de mayo 1904

Adiskide Usebio

Anayac herrantzan nola herrancinacon Mayatzeco Feria egunian yaz hor egon behi hura hartuco cinahala. Egun nay nin carri, bana ezin carriut. Ene ideya da heldu den ortzeunian cartzeco eta nainuque yaquin hera horra be-rea carribehautan edo ateraco cien bidea. Ortzeun goician carricout biciqui goicic beti. Oray, Usebio, igorrazu berehala bi lerro isquiatuic hera zein behautan, zure ideya. Oray guelditzeniz zure contestain beha. Igorrazu berehala cerbait berri.

Pedro Arrosagaray Lapitz

Huna direcionia: Pedro Arrosagaray, Valcarlos

### Egungo grafian emanik

Valcarlos, a 12 de mayo 1904

Adiskide Usebio

Anaiak errantzan nola erran[t]zinakon Maiatzeko feria egunian jaz hor egon behi hura hartuko zinahala. Egun nai nin karri, bana ezin karriut. Ene ideia da heldu den ortzeunian kartzeco eta nai nuke jakin hera horra berea karri behautan edo aterako zien bidea. Ortzeun goizian karricout biziki goizik beti. Orai, Usebio, igorrazu berehala bi lerro iskiatuik<sup>9</sup> hera ze in behautan, zure ideia. Orai gelditzeniz zure kontestain beha. Igorrazu berehala zerbait berri.

Pedro Arrosagarai Lapitz

Huna direzionia: Pedro Arrosagarai, Valcarlos

<sup>8</sup> Ez dakigu zer den hau; bigarren *a* goratua dago, hitza idaztean ahantzi eta gero sartu nahi izan balute bezala. Tildea ere badu (*à*).

<sup>9</sup> *Iskiatuik* ere irakur daiteke.

## HIZTEGIA

- Abantail (1)  
 Adreza (1). Frantseseko *adresse*-tik dator, bistan denez. Hirugarren letran, Luzaidekoan, *direzionia* dago, espainoleko *dirección*-etik.
- Ahaide (1)  
 Ahal izan (1) (2)  
 Aita (1)  
 Aitzin ‘aurrea’ (2). Inesiboan doa eta postposizioa den aldetik genitiboa galdegiten du: *Andredena Mariaren aitzinian*.
- Alabitxi (1)  
 Altxatu ‘gorde’ (1)  
 Anaia (3)  
 Andredena ‘Andre Dona’ (Ama Birjinaren izenak aitzinean ohi daraman aposizioa) (2)  
 Apellido (1)  
 Arabera (2) (+ gen.): *hitzaren arabera*  
 Arazi (*eginarazi*) (1), (*erranarazi*) (2)  
 Ari (izan) (da - du) *ad.* (1)  
 Arno (1)  
 Arrapostu ‘erantzuna’ (1) (2). Luzaiden *errepóstja* erraten da egun. Garaziko 1893ko gutunean (Satrustegi, 1971: 298) *arrapostu*-ren eta *errepustu*-ren artekoa dirudien *erapostu* (*errapostu* alegia) dago. Ikus *kontest(a)*.
- Arras (1) (2). Mailakatzaila; Luzaiden segurik *arrunt* baino koska bat beharagokoa da, *biziki*-ren pareko.
- Arreba (1)  
 Arte (1): *orai artian*  
 Atera (3)  
 Aurth[en] (1)  
 Bainan (1), bana (3). Lehenbizikoa, Baigorri aldean ibiltzen dena (ikus Euskaltzaindia, 1999: 138), ez da Arnegi-Luzaideetakoa, baina bai bigarrena (‘baina’ eta ‘baizik’ adierak ditu). Satrustegik argitara emandako alderdi honetako gutunetan (1971: 298) *bainan* dago, harrigarria bada ere, euskara jaso –kantuak– eta idatzia –*Eskualduna* agerkaria menturaz– alde bat uzten baditugu segurik.
- Baldin, balin ba (1). Biak batean agertzen direnean *-d-dun* aldaera lehe-na doa eta horzkaririk gabea *ba*-ren aitzinean. Bestela, *balin ba* dugu: *Izeba Nimiño, baldin jin nahi balin badu Ameriketarat, pasaia pagatua izanen due-la, hor desgustuan balin bada jin dadin (...)*. 1898ko Luzaideko letran (Satrustegi, 1971: 302) *Baldin conforme bacina* dugu, ildo beretik; egungo Luzaideko erabilera hori bera da eta, literaturako adibide bat aipatze aldera, Hiriart-Urrutirena ere bai (2004).
- Bat (1)  
 Batzu (1)  
 Beha egon, gelditu (+ gen.) ‘esperoan egon’ (1) (3). Harrigarriro lehen letran, *beha egon*-ekin batean, *arrapostuaren espero* (*gelditu*) ere badago.
- Behar (izan) (3): *karri behautan* ‘ekarri behar dudun’  
 Behi (3)  
 Beldur (1)

- Ber 'bera' (1), beraz (instrumentala, ez 'hortaz') (1), berea 'berera' (3)  
 Berehala (3)  
 Berri (1) (3) *iz.* Albistea / berritan (2) *adond.* Berriki  
 Bertze (1)  
 Bethi (1) (2), beti (3)  
 Bezala (1), bezela (1)  
 Bi (3). Ondoan izena du: *bi lerro*  
 Bide (3)  
 Bisitatu (1)  
 Biuda (1). Egun Luzaiden *alargún* (gizona) eta *alargúntsa* (emaztekoa) ibiltzen dira, baina *bjúda* ere aditzen da.  
 Biziki 'oso' (3). Ikus *arras*.  
 Buelatu 'itzuli' (1). Harrigarria da forma hau; *itzuli* espero genuen.  
 Deliberatu 'erabaki' (1)  
 Desgustu (1): *Desgustuan*  
 Desiratu (1) (2)  
 Dio 'erraten du' (2)  
 Direzione (3). Ikus *adreza*.  
 Diru (1). Egun *sós* ibiltzen da arruntean, ez *diru*.  
 Edertu (1)  
 Edo (1)  
 Edozoin (2). Luzaiden egun *edozein* eta *edozoin* ibiltzen dira eta irudi du bigarren hau ez dela azken urteotan sortua, 1898ko letran ere (Satrustegi, 1971: 302) azaltzen delako.  
 Egile (1)  
 Egin (1) (2), in (3)  
 Egon (3)  
 Egun *iz.* (3), egun *adond.* (3)  
 Ene (1) (3)  
 Erdi (1)  
 Ere (1)  
 Erran (2)  
 Erremesiatu 'eskertu' (1). Frantseseko *remercier*-etik.  
 Errexitru 'errolda' (1). Frantseseko *registre*-tik.  
 Errezebitu (1) (2)  
 Errespetu (1)  
 Erretratu (1). Espainoleko *retrato*-tik; egun *potréta* erran ohi da 'argazkia' adierazteko.  
 Esku (1)  
 Esperantza (izan) (1) (2). Bitxia da aldaera hau agertzea eta ez espero genuen *esperantxa* (*espeántxa* orain Luzaiden). Hemen, berriz ere, literatura euskararen eragina ikusi beharko dugu.  
 Esperatu (1): *horien ororen berriak esperatzen tugula*. Hau ez da ohikoa Arnegi-Luzaide aldean; honen ordainetan *horien ororen berriak esperantxa tugula*-ren moduko zerbait igurikitzen genuen.  
 Espero (1) (+ gen.). Aditza *gelditu* da kasu honetan. Nabarmenezkoa da hitza inesiboan ez egotea; irudi luke Iparraldeko *beha*-ren ordeztu (ikus gorago) Hegoaldeko *espero* hartu duela izkiriatzaileak, baina mugaz haraindiko maneran ibili duela.



- Eta (1)  
 Etxe (1)  
 Ez (1)  
 Ezarri ‘paratu’ (1)  
 Ezin (izan) (3): *ezin karriut* ‘ezin ekar dezaket’.  
 Ezkondu (1)  
 Fagore (egin) (1)  
 Familia (1)  
 Feria (3)  
 Fidel ‘leiala’ (2)  
 Fite (1)  
 Gabe (2)  
 Gainerako (2)  
 Galarrots (1)  
 Galdatu ‘galdetu, galdegin’ (1). Instrumentalarekin erabilia dago hemen: *gutaz galdatzen dute*. Orain *galdéin* edo *galdín* ‘galdetu’, ‘eskatu’ erraten da, baina cf. B. Etxeparekoren “Potaren galdacia” (1980 [1545]: 168).  
 Gauza (2)  
 Gazte (1)  
 Gaztigatu ‘abisatu’, ‘jakinarazi’ (1)  
 Gelditu (1) (3)  
 Gisa (2). Inesiboan eta aditzizenarekin: *konprenitzeko gisan* ‘ulertzeko moduan’  
 Goiz *iz.* (3), goizik *adond.* (3)  
 Goraintzi (1) (datiboa galdegiten du: *arrebari, familiari, guzier*): *mila goraintzi nahiz mila goraintziak* (1)  
 Gozatu (1) (instrumentalarekin doa: *abantail beraz goza ziten*)  
 Gu (1)  
 Gure (1)  
 Guti (1)  
 Guzi (1)  
 Hamahiru. Ikus *hoge*  
 Handi (1)  
 Handizki (1)  
 Hanitz (1)  
 Hartu (1) (3)  
 Hasi (1)  
 Hau[rri]de (1)  
 Haur (1)  
 Hea ‘ea’ (1), hera (3)  
 Heldu (2). *Ad.* ‘iritsi’; egun bezala irudi du *heldu zautzu* ‘datorkizu’ edo ‘doakizu’ dela, ez ‘etorri zaizu’ edo ‘joan zaizu’. Gero ere ageri da (2) (3): *Pedro Apheztegi heldu da, heldu den ortzeunian*.  
 Hemen (1)  
 Hen ‘haien’ (1)  
 Hil (1) (2) *ad.* eta *iz.*  
 Hitz (2)  
 Hoge (1), hogeietatik bat (1), hoge eta hamahiru (2). Bitxia da, hein batean, *hoge* agertzea, orain ibiltzen den *hogoi*-ren partez. XIX. mendeko le-

tretan (Satrustegi, 1971) *berroquey* dago behin, baina gainerakoetan beti *hogoy*.

Hor (1), horra 'horra hor' (1), horra 'horra' (3). Ondarrolako 1841eko letran *horrat* 'horra' dago (Satrustegi, 1971: 294) eta egun ere *hórrat* erraten da.

Horien (1)

Huna 'hona hemen' (1) (2) (3)

Hunen 'honen' (1)

Hura *izord.* (3), hari (datiboa) (1), harena (gen.) (1)

Ibili (1)

Idabazi (1). Ondarrolako 1841eko gutunean (Satrustegi, 1971: 293) *irabaci*, *yrabazten*, *yrabaz bide* daude. Egun *irázi* erraten da Luzaiden; herri honetako orain hogeita hamar urteko letretan *irabazi* ohi dugu egile batenetan, eta *irazi* bestearenetan.

Idea (izan) (1) (3)

Igorri (1) (2) (3)

Ilhunbe (1)

Indar (1)

Ikhusi (2), khusi (1)

Irakurtu 'irakurri' (1)

Iskiatu (-x-?) 'izkiriatu, idatzi' (3)

Itho (1)

Izan (1)

Izeba (1). Gorago erran bezala, gaur egun *ttántta* erraten da.

Jainko (2). Harrigarria da aldaera hau agertzea, eta ez *Jinko* edo gutxienez *Jeinko* (cf. Kamino & Salaberri, 2004: 104). Bistan denez, hitz hasierako *j-* horiek guztiak [j] irakurri behar dira, ez [x].

Jakin (1) (3)

Jauzi egin (1)

Jaz (1) (3)

Jende (1): *hanitz jende* 'jende asko'. *Jende* 'pertsone', 'lagun' adieran ere ibiltzen da egun, zenbaki baten ondoan: *hamar jende, ehun jende...*

Jin (1)

Jo (1)

Juan (1) (2)

Kapataz (1)

Karnabalak (1). Gure egunotan ohikoa da *karnabálak* hitza Luzaiden, baina, honekin batean *iháut-astearte*, *iháut-igánde* eta beste ibiltzen dira.

Karpintero (1). Gaztelaniako *carpintero*-tik hartua; hitz ohikoa *zurgína* da Luzaiden.

Karri (3)

Konserba (1)

Koinat 'koinatua' nahiz 'koinata' (1)

Komenitu *ad.* (da) 'hitzartu', 'adostu' (1)

Konprenitu (2)

Kontest(a) 'erantzuna' (3). Ikus *arrapostu*.

Labur (2)

Lerro (2)

Letra (1) (2)

Lotsatu ‘beldurtu’ (1). Orain *izitu* da usaiako hitza Luzaiden, baina *lotsá-tu* ere ezaguna da zentzu horrekin, *lának lotsá-tu*-ren modukoetan. Irudi luke *lotsá-tu izitu* baino gehiago dela, *harrítu*-ren baliokidea edo.

Maiatz (1)

Matan[t]za (1) ‘azienda (ardi?) hiltzea’, [ma]tantza (?) (2)

Menturaz (1)

Meza (2)

Miatu (1)

Mila (1)

Miliunka ‘milioika’ (1)

Nahi (izan) (1), nai (izan) (3) *ad. / atributua*: jakin nahia izan (1)

[N]ausi (2)

Negoziant(e) (2). Testuan *edozoin negoziantez* dago, instrumentalean, eta ez dakigu oinarrian espainoleko *negociante* dagoen (Uruguayn bizi ziren) edo oraino Garazi aldean ibiltzen den frantseseko *négociant*-etik ateratako *negoziant*.

Neskato ‘neskamea’ (1)

Noiz (1)

Nola (1)

Non (1). Orain *nún* ibiltzen da.

Nor (1)

Olo (1). Soinu bustia duen aldaera da ohikoa orain ere.

On (1). Hau literatura euskararen ondorio dateke; ikus ondoko sarrera.

Ontsa (1). Segur aski literatura euskararen ondorio da *o*- hori, Satrustegik argitaratu zituen 1841, 1893 eta 1898ko Ondarrolako eta Luzaideko letratan (1971) *untsa* ageri baita. Egun *hún* eta *úntsa* erraten da.

Orai (1) (3)

Orhoitu (1). Egun *ohítu* eta *ohít izán* ibiltzen dira; B. Etxeparek (1980 [1545]: 129) *orhítu* eta *orhít izan* darabiltza.

Oro (1)

Ortzeun (3)

Osagarri (1) (2)

Otsail (1)

Pagatu (1)

Partikularrian ‘bereziki’ (1). Orain *partikulázki* erraten da.

Pasaia (1)

Peso (dirua) (1)

Pharte (1)

Phastu (1)

Phentsatu (2)

Plazer (1) (dardarkaria anizkuna da)

Pot ‘musua’ (2). Cf. B. Etxeparekoren “Potaren galdacia” (1980 [1545]: 168)

Segitu *ad.* (da) (2)

Sos (1) (2)

Triste (1)

Tur ‘itzulia’ (1). Frantseseko *tour*-etik.

Urthe (1)

Xahar (2)

- Xeheki (1)  
 Xerkha (2). Luzaiden egun *xéka* erraten da.  
 Xinhaurri (1). Orain *zinúrri* edo *xinúrri* erabiltzen da.  
 Zahar (1)  
 Zato (1) *ad.* (etorri)  
 Ze 'zer' (3)  
 Zerbait (3). Zenbatzailea da hemen: *zerbait berri* 'berri zenbait', 'berri zerbait', 'berriren bat'.  
 Zenbat (1)  
 Zuhaur *izord.* (abs.), zuhaurek (2), zuharek (< zuhaurek) (erg.) (2)  
 Zure (1) (3)

## IZEN BEREZIAK

### Antroponimoak

- Andredena Maria (2)  
 Andria (1). Ez dakigu antroponimoa den, gaztelaniako *Andresa*-ren parekoa, frantseseko *Andrée* alegia, edo euskara orokorreko *andrea*. Hondarreko hau harrigarria litzateke, alderdi honetan *máztja* 'emaztea' eta *maztékja* 'emakumea' ibiltzen direlako.  
 Ana Josefa (1)  
 Apheztegi (1)  
 Erramun Txiko (1)  
 Ferrandita (1)  
 Ferrandito (2)  
 Ferrando Gaztanbide (1) (2)  
 Franziska D. Gaztanbide (1)  
 Geexina (1)  
 Joines (1)  
 Jose (1)  
 Josepa (1)  
 Josepe Ezkerra (1)  
 Juan (1)  
 Juana (1)  
 Juanaño (1) (2)  
 Juanes (1)  
 Katalina (1)  
 Manex (1)  
 Manex Haran (2)  
 Nimiño (1)  
 Muño (1)  
 Paskual, Paskual Harriaga (1) (Hazparne, 1819 – Paris, 1894). Egun *Pascual Harriaga* Salto hiriko etorbide baten izena da. Bistan denez antroponimoa da, hots, izenaz eta deituraz osaturik dago. Gizon honek *harriage* edo *tannat* izeneko mahats mota sartu zuen Uruguain, Euskal Herritik Argentina joatean Juan Jauregi "Lorda" izenekoak ezkutuan eraman zituen mahatsondoak baliatuz.  
 Pedro Apheztegi (2)

Pedro Arrosagarai (3)

Pelo (1)

Piarre Ttipia (1). Ikus beherago dioguna

Usebío (3)

Leku izenak (toponimoak eta oikonimoak)

Ahazparne (1)

Ameriketa (1)

Beriaunia (1). Irudi du Ondarrolako etxea zela, baina ez dakigu egun horrelakorik baden; guk ez dugu kausitu. Bortzerrietan usaiakoa den *Bereau* egon daiteke oinarrian, baina deitura hau, dakigula, ez da ohikoa Garazin.

Bixkaia (1), Bixkainia (1). Ondarrolako etxea, bi erataro ageri dena.

Concordia. *Concordia* Argentinako hiria da, Uruguako *Salto* hiriaren aurkezian dagoena, *Uruguai* ibaiaren ertzean.

Donijuane (1). *Donibane Garazi*-ren aldaera, jatorrizko *Done Johane*-tik atera dena. Hondarreko forma hau da Idoatek 1969an argitaratutako 1415eko letran, Matxin Zalbakok Martin Sanmartingori egin zionean, ageri dena: “*Et[a] jaquiçu done Johane garacicoec dute[la] gracia (...)*”. Beraz, *Donijuane* forman ez da, pentsa litekeenaz bestera, tarteko *-b-* erori, hau bigarrenkaria baita. Bilakaera *Done Joane* > *Donejuane* > *Donijuane* > *Donjáne* (egungo aldaera) izan dela dirudi.

Europa (2)

Gallurria (1). *Gallúrrja* Ondarrolako etxea da; ez dakigu oinarrian dagoen *gallurru* bestetako *gailur* hitza denez, alderdi honetan orain ez baita ibiltzen; gainera, ez dago *gailur* batean kokatua. *OEH*-n, dena dela, bildua da *gallurru* ‘gailurra’ aldaera.

Ondarla (1). *Ondarrola*-tik atera da, irudi duenez *Ondárrola* azentuatzen zen aldaeratik. Egun *Undarla* erraten da, sudurkariaren aitzineko bokalaren hersketaz. Etimologia *hondar* + *ola* ‘etxola’, ‘burdinola’ da (ikus, honetaz, Sastrategi, 1970: 99-106), bistan denez.

Ortxaixenia (1). Irudi du *Ortxaize* herri izenean iturri duen *Ortxaix* izen-goitian oinarritua dela.

(Saladero del) Salto Oriental (de Uruguay). *Salto* hiria eta departamendua *República Oriental de Uruguay* delakoan dago, Uruguai ugaldearen ertzean, Argentinako Concordia hiriaren aurkezian.

Tottania (2). Egun *Tottáinja* erraten da; oinarrian *Jose(pe)*-ren hipokoristikoa den *Totte* dagoke.

Unhaiainia (1). Ondarrolako etxea, egun *Unaiáinja* erraten da; oinarrian *unaia* ‘azienda larrien zaintzailea’ dago, nahiz egun han ez den hitz hori ibiltzen. Mezkiritzen berriz, ohikoa izan da hondarreko euskaldunen hizkeran *unéa* aldaera.

Uruguai (1)

Oikonimoetan oinarritu antroponimoak

Ortxaix (1). Ondarrolako *Ortxaixenia* etxekoa; ikus gorago erran duguna Piarre Ttipia. Auzo bereko *Ttipiainia*-koa, itxura denez

## BIBLIOGRAFIA

- ETXEPARE, B. (1980 [1545]: *Linguae vasconum primitiae*, Patxi Altunak paratu edizio kritikoa, Mensajero, Bilbo. Bada facsimile erako argitalpena, gaztelania, ingeles, frantses, aleman eta italierako itzulpenak dituena, Euskaltzaindia, Bilbo, 1995.
- EUSKALTZAINDIA (1999): *Euskal Herriko Hizkuntza Atlasa. Obiko Euskal Mintzamoldeen Antologia*, liburua eta bost CD, Bilbo.
- HIRIART-URRUTI, J. (2004): *Ni kazeta-egilea naiz*, Xabier Altzibarrek paratu argitalpena, Labayru Ikastegia & Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, Bilbo.
- IDOATE, F. (1969): “Una carta del siglo XV en vascuence”, *FLV*, 2, 287-290.
- KAMINO, P. & SALABERRI, P. (2004): “Nafarroa Behereko hiru eskutitz”, *FLV*, 95, 89-113.
- SATRUSTEGI, J. M. (1970): “Notas al libro de cuentas de Valcarlos”, *FLV*, 4, 95-115.
- (1971): “Correspondencia familiar vasca del siglo XIX”, *FLV*, 9, 291-306.

## LABURPENA

Lan honetan Uruguako Salto hiritik herrialde horretako Montevideoa igorritako 1893ko bi gutun eta 1904ko Luzaideko beste bat ematen ditugu argitarara. Lehen bien egileak Arnegiko Ondarrola auzokoak ziratekeen, ibiltzen duten euskara lekuaren gainean egiten den berbera ez bada ere. Hirugarrena Luzaiden idatzia da eta dudarik gabe herri honetako hizkeran izkiriaturik dago.

## RESUMEN

En este artículo publicamos dos cartas euskéricas fechadas en 1893 y enviadas desde la ciudad de Salto de Uruguay a la capital Montevideo, y otra de Valcarlos o Luzaide de 1904. Los autores de las dos primeras, al igual que el receptor de las misivas, debían de ser naturales del barrio de Ondarrola de Arnegi, a pesar de que el euskera que emplean no sea exactamente el usado en el lugar. La tercera carta fue escrita en Valcarlos y refleja más fielmente el habla de la localidad.

## RÉSUMÉ

Dans cet article nous publions deux lettres de 1893 en euskera, envoyées de la ville de Salto d'Uruguay à la capitale Montevideo, et une autre de Valcarlos ou Luzaide de 1904. Les auteurs des deux premières, tout comme le récepteur des missives, devaient être originaires du quartier d'Ondarrola d'Arnegi, bien que l'euskera qu'ils utilisent ne soit pas exactement celui qui est utilisé à cet endroit. La troisième lettre qui a été écrite à Valcarlos, reflète plus fidèlement la langue de la localité.

## ABSTRACT

This article includes two letters written in the Basque language sent in 1893 from the Uruguayan city of Salto to the capital Montevideo and another from Valcarlos/Luzaide in 1904. The authors of the first two and the person receiving the letters would appear to be from the Arnegi district of Ondarrola, although the Basque used does not exactly correspond to the local version. The third letter was written in Valcarlos and is a more faithful reflection of local speech.